

Diktadura, gurea ere ez dugu nahi

Deia, 1977-09-10.

Demokrata garenok, indarkeriaren aurka gaude.

Baina ez indarkeria berezi baten aurka bakarrik, nonnahitik ezarri nahi digutenaren aurka baizik.

Diktadura euskalduna ez da neretzat hobea.

Esan izan dut hemen bertan, ez dugula gure hitza euskal-hitzaren eskubide bakarrik defendatu behar, euskal-hitz *osoa* baizik. Zentsuraz, berdin. Erdaldunak euskaldunoi ezarri izan digutena burukatatu dugu, baina berdin burukatuko dut nik euskaldunak beste inori ezarri nahi diona ere.

Hemen, hitzak berak baino hitzaren ispirituak du gizonarentzat garrantzia.

Eta hitzaren esangura orokor eta osoak.

Ostegunean anai artean gertatu zenak ez du zentzurik. Bai, badu zentzu bat: abertzale garenontzat lotsakizunezkoa. Oraindik ez dugu Erdi Haroak gure lurretan ikusi eta jasan zituen anai arteko banderizokeriarik gainditu. Atzera goaz historian. Izan ditugu gure artean istiluak, eta batzuetan larriak, baina ez dugu orain arte honelako espektakulorik inoiz eman. Madrilen poz egin duenak gure herriari min eman dio. Eta ez da bakarrik anaiak anaia jo, iraindu eta berea den eskubidearen aurka agintekeria jarri zaiolako, baita erronka horiek herriaren eta askatasunaren eta beste gauza eder eta maite askoren monopolioa balute bezalako jauntxokeria eta diktatorearen hasarre eta zanpakeria bidez egin direlako ere.

Deitua izan zen eta joan izan nahi ez zuenak ez zuen ibilaldi horretan sartu beharrik. Eta zihoanak bazekien arau batzuk bete beharrekoak zirela. Eta hortik kanpora beste bat egin nahi zuenak ere bazuela ibilaldia egiteko tokia.

Gertatutakoak ez du justifikabiderik.

Nik defendatzen ditut gazteak eta gazteek dituzten eskubideak eta eginbide batzuk; gazte izan denak badaki odolaren beroa eta justiziaren zuri-beltzkeria, radikaltasuna. Baina gizatasun, errespetu eta abertzaletasunak neurri bera du denontzat.

Euzkadi behinbetiko lehertu nahi al dugu?

Ezin bide hoberik aurkitu.

Ez dugu aspaldi honetan minik, erresuminik, eta euskaldun izateko lotsarik sentitu.

Diktadurarik, ez dugu gurerik ere nahi.